

**ESTATUTU PROIEKTUA
ARABAKO PROKURADOREEN
ELKARGO OHORETSUA**

**PROYECTO DE ESTATUTO
DEL ILUSTRE COLEGIO DE
PROCURADORES DE ÁLAVA**

**I. TITULUA.-
XEDAPEN OROKORRAK.**

**TÍTULO I.-
DISPOSICIONES GENERALES.**

1. artikulua. Xedea.

Estatutu honen xedea da Arabako Epaitegietako Prokuradoreen Elkargo Ohoretsuaren (AEPEO) antolamendua eta funtzionamendua arautzea.

Artículo 1. Objeto.

El objeto del presente Estatuto es regular la organización y funcionamiento del Ilustre Colegio de Procuradores de los Tribunales de Álava (ICPTA).

2. artikulua. Izaera eta nortasuna.

1. AEPEO zuzenbide publikoko korporazioa da, legearen arabera eratu eta aitortua, eta auzitegietako prokuradore gisa dihardutenek osatzen dute ¹. Gizartearen eta elkargokideen interes orokorraren zerbitzura jardungo du, dagozkion funtzioak eta eskumenak gauzatuz.

Artículo 2. Naturaleza y personalidad.

1. El ICPTA es una Corporación de derecho público constituida y reconocida con arreglo a la Ley e integrada por quienes ejercen la profesión de Procurador de los Tribunales ¹. Actuará al servicio del interés general de la sociedad y de sus colegiados mediante el ejercicio de las funciones y competencias que le son propias.

¹ Lanbide Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Estatuko Legearen 1.1 artikulua (LEL)

¹ Art. 1.1 Ley del Estado 2/1974, de 13 de febrero, sobre Colegios Profesionales (LCP)

2. Elkargoak nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa du bere helburuak betetzeko ².

3. Bere antolaketa eta funtzionamenduan autonomia osoa du Estatutu honen esparruan eta Justizia Auzitegien bermepean.

3. artikulua. Lurralde-eremua.

AEPEOren lurralde-eremua Arabako Lurralde Historikoa da.

4. artikulua. Egoitza.

AEPEOren egoitza Vitoria-Gasteizen dago, Gasteiz hiribideko 18 zenbakian.

5. artikulua. Hizkuntza koofizialtasuna.

Euskara eta gaztelania AEPEOren hizkuntza ofizialak dira, berdintasun-mailan, euskararen normalizazio-prozesua eta sustraitze soziala aintzat hartuta.

2. El Colegio tiene personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines ².

3. En su organización y funcionamiento goza de plena autonomía en el marco del presente Estatuto y bajo la garantía de los Tribunales de Justicia.

Artículo 3. Ámbito territorial.

El ámbito territorial del ICPTA se corresponde con el del Territorio Histórico de Álava.

Artículo 4. Domicilio.

El domicilio del ICPTA radica en Vitoria-Gasteiz, Avda. Gasteiz núm. 18.

Artículo 5. Cooficialidad lingüística.

El euskera y el castellano son lenguas oficiales del ICPTA, en condiciones de igualdad, dentro del proceso de normalización de la primera y de la realidad de su arraigo social.

² Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko Eusko Legebiltzarraren azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 22. artikulua

² Art. 22 Ley del Parlamento Vasco 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales³ 18/1997 Legearen 22. artikulua eta LELren 1.3 artikulua.

6. artikulua. Funtsezko helburuak.

AEPEOren funtsezko helburuak dira:³

a) Bere eskumenen esparruan, lanbidearen jarduna agintzea.

b) Prokuradoreen ordezkartza instituzional eskusiboa izatea bere lurralde-eremuan.

c) Prokuradoreen interes profesionalak defendatzea.

d) Deontologia profesionala betetzen dela eta elkargokideen zerbitzu profesionalen kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babesten direla zaintzea.

e) Lankidetzaren bidez, Justizia Administrazioaren funtzionamendua sustatu eta hobetzea, bai eta lege prozesalek eta organikoek agintzen dizkioten funtzioak eta zerbitzuak ematea ere.

7. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioekiko harremanak.

1. AEPEOk harremanak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin, alde batetik,

Artículo 6. Fines esenciales.

Son fines esenciales del ICPTA:³

a) Ordenar, en el ámbito de su competencia, el ejercicio de la profesión.

b) Ostentar la representación institucional exclusiva de la Procura en su ámbito territorial.

c) Defender los intereses profesionales de los procuradores.

d) Velar por la observancia de la deontología profesional y por la protección de los intereses de los consumidores y usuarios de los servicios profesionales de sus colegiados.

e) Promover y mejorar mediante su colaboración el funcionamiento de la Administración de Justicia, así como prestar las funciones y servicios que las leyes procesales y orgánicas le encomiendan.

Artículo 7. Relaciones con las Administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

1. El ICPTA se relacionará con la Administración de la Comunidad Autónoma de País Vasco, en las

³ 18/1997 Legearen 22. artikulua eta LELren 1.3 artikulua.

³ Art. 22 Ley 18/1997 y art. 1.3 LCP⁴ 18/1997 Legearen 56. artikulua eta 10. xedapen gehigarria

Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legean jasotako izaera orokorreko alderdi profesional, instituzional eta korporatiboei buruzko gaiei dagokienez, eta bestetik, lanbidearen edukiari buruzko gaiei dagokienez. Lehen kasuan, elkargo profesionalen arloan eskumena duen sailaren bitartez jarriko da harremanetan, eta bigarrean, Eusko Jaurjaritzan justizia-arloan eskumena duen sailaren bitartez. ⁴

2. Elkargoak, bere funtzio propioez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, Foru Administrazio Publikoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioak eskuordetutako administrazio-funtzioak ere bete ahal izango ditu, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 25. artikuluan aurreikusitako moduan.

3. Era berean, AEPEOK harremanak izango ditu Estatuko Administrazio Orokorrarekin, Espainiako Prokuradoreen Kontseilu Orokorrarekin eta gainerako organismo eta erakunde publikoekin, eta dagozkion erakunde-loturak izango ditu haiekin.

cuestiones relativas a los aspectos profesionales generales, institucionales y corporativos de carácter general contemplados en la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales a través del Departamento competente en materia de colegios profesionales, y en las cuestiones referentes al contenido de la profesión, a través del Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Justicia. ⁴

2. El Colegio podrá ejercer, además de sus funciones propias, funciones administrativas delegadas por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de la Administración Pública foral así como local del País Vasco en los términos previstos en el artículo 25 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

3. Asimismo, el ICPTA mantendrá relaciones y atenderá a las vinculaciones institucionales que le correspondan con la Administración General del Estado, el Consejo General de Procuradores de España y demás organismos e instituciones públicos.

⁴ 18/1997 Legearen 56. artikulua eta 10. xedapen gehigarria

⁴ Art. 56 y DA 10ª Ley 18/1997⁵ LELren 3.3 artikulua, 18/1997 Legearen 39.1 eta 4. artikulua eta BJLOren 544.2 artikulua.

II. TITULUA.- ELKARGOKIDEAK.

I. KAPITULUA.- ELKARGOKIDETZEKO ARAUBIDEA.

8. artikulua. Derrigortasuna.

1. Lanbidean jarduteko, AEPEOn sartu behar dute lanbide-egoitza bakarra edo nagusia elkargoaren lurralde-eremuan duten prokuradoreek.

2. Elkargoan sartuz gero, prokuradoreak Espainiako lurralde osoan jardun ahal izango du lanbidean. Elkargoak ezin izango die inolako komunikaziorik edo gaikuntzarik eskatu elkargokide ez diren beste lurralde batean lan egiten duten profesionalei, ez eta kontraprestazio ekonomikorik ere, baldin eta kontraprestazio horiek, normalean, elkargokideei eskatzen badizkiete onuradun diren zerbitzuak emateagatik, eta elkargoaren kuotak estaltzen ez baditu.

TÍTULO II.- DE LOS COLEGIADOS.

CAPÍTULO I.- RÉGIMEN DE COLEGIACIÓN.

Artículo 8. Obligatoriedad.

1. Para el ejercicio de su profesión vienen obligados a la incorporación en el ICPTA los Procuradores que tengan su domicilio profesional único o principal en el ámbito territorial del Colegio.

2. La incorporación al Colegio habilita al Procurador para ejercer su profesión en todo el territorio español. El Colegio no podrá exigir a los profesionales que ejerzan en un territorio diferente al de su colegiación comunicación ni habilitación alguna, ni el pago de contraprestaciones económicas distintas de aquellas que exijan habitualmente a sus colegiados por la prestación de los servicios de los que sean beneficiarios y que no se encuentren cubiertos por la cuota colegial.

3. Elkargokide ez diren beste lurralde batean burutuz gero jardun profesionala, AEPEOri dagozkion antolamendu-eskumenak eta diziplina-ahala erabiltzeko, kontsumitzaile eta erabiltzaileen mesedetan, Zerbitzu-jardueren eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Estatuko Legean aurreikusitako komunikazio-mekanismoak eta agintaritza eskudunen arteko administrazio-lankidetzarako sistemak erabili beharko ditu AEPEOk.⁵

3. En los supuestos de ejercicio profesional en territorio distinto al de colegiación, a los efectos de ejercer las competencias de ordenación y potestad disciplinaria que corresponden al ICPTA, en beneficio de los consumidores y usuarios, éste deberá utilizar los oportunos mecanismos de comunicación y los sistemas de cooperación administrativa entre autoridades competentes previstos en la Ley del Estado 17/2009, de 2009, de 23 de noviembre, sobre el libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio.

5

9. artikulua. Kokatzeko eta zerbitzuak emateko askatasunak.

Artículo 9. Libertades de establecimiento y de prestación de servicios.

Europar Batasuneko edozein estatutan ezarritako profesionalen jardun iraunkorra eta aldi baterako lekualdaketa kasuan zerbitzuak ematea Europako Erkidegoko zuzenbidea aplikatzeko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.⁶

El ejercicio con carácter permanente de profesionales de la Unión Europea establecido en cualquiera de sus Estado y la prestación de servicios en caso de desplazamiento temporal se regirán por lo dispuesto en la normativa vigente en aplicación del Derecho Comunitario.⁶

⁵ LELren 3.3 artikulua, 18/1997 Legearen 39.1 eta 4. artikulua eta BJLOren 544.2 artikulua.

⁵ Arts. 3.3 LCP, 39.1 y 4 Ley 18/1997 y 544.2 LOPJ

⁶ 18/1997 Legearen 39.1.2 eta 40.2 artikulua eta LELren 3.4 artikulua.

⁶ Arts. 39.1.2º y 40.2 Ley 18/1997 y art. 3.4 LCP⁷ Abokatutzan eta auzitegi-tako prokuradoretzan sartzeari buruzko urriaren 30eko 34/2006 Legearen 2.1 artikulua.

10. artikulua. Elkargokide-izaera eskuratzea.

1. AEPEOn sartzeko beharrezko baldintzak dira:

a) Zuzenbidean lizentziaduna edo zuzenbideko graduko unibertsitate-titulua izatea. ⁷

b) Auzitegieta prokuradorearen lanbidean jarduteko gaitzen duen lanbide-titulua izatea, Abokatutzan eta auzitegieta prokuradoretzan sartzeari buruzko urriaren 30eko 34/2006 Estatuko Legean xedatutakoaren arabera.

c) Prokuradore lanbidean aritzeko ezgaitasun, gaitasungabetze, bateraezintasun edo legezko debekurik ez izatea.

d) Elkargoko zehapen irmoagatik prokuradoreen elkargo batetik kanporatu ez izana.

e) Ez izatea abokatuen elkargo bateko jarduneko kide aldi berean. ⁸

2. Aurreko apartatuko b) letran aurreikusitako baldintza exijitzeak ez dio kalterik egingo Estatutuaren

Artículo 10. Adquisición de la condición de colegiado.

1. Son condiciones necesarias para ingresar en el ICPTA:

a) Estar en posesión del título universitario de Licenciado en Derecho o de Grado en Derecho. ⁷

b) Poseer el título profesional que habilita para el ejercicio de la profesión de Procurador de los Tribunales con arreglo a lo dispuesto en la Ley del Estado 34/2006, de 30 de octubre, sobre el acceso a las profesiones de la Abogacía y la Procura.

c) No hallarse incurso en causa de incapacidad, inhabilitación, incompatibilidad o prohibición legal para el ejercicio de la profesión de Procurador.

d) No haber sido expulsado de un Colegio de Procuradores por sanción colegial firme.

e) No estar colegiado simultáneamente como ejerciente en un Colegio de Abogados. ⁸

2. La exigencia de la condición prevista en la letra b) del apartado anterior se entiende sin perjuicio de lo

⁷ Abokatutzan eta auzitegieta prokuradoretzan sartzeari buruzko urriaren 30eko 34/2006 Legearen 2.1 artikulua.

⁷ Art. 2.1 Ley 34/2006, de 30 de octubre, sobre el acceso a las profesiones de la Abogacía y la Procura

⁸ 34/2006 Legearen 1.4 artikulua.

⁸ Art. 1.4 Ley 34/2006⁹ LELren 3.1 artikulua.

lehenengo xedapen iragankorrak ezarritakoari.

3. Eskatutako titulazioa dutenek eta aurreko apartatuan ezarritako baldintzak betetzen dituztenek elkargoan onartuak izateko eskubidea izango dute.⁹

11. artikulua. Sartzeko prozedura.

1. Gobernu Batzordeak hilabeteko epean ebatzi eta jakinaraziko ditu elkargoko kide izateko eskabideak, eta aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez direnean bakarrik ukatu ahal izango ditu. Batzorde horrek kide bati eskuordetu ahal izango dio eskumen hori.

2. Gehienezko epe hori igaro eta Gobernu Batzordeak ebazpenik jakinarazi ez badu, eskaera baietsizat joko da.

3. Ebazteko epea eten ahal izango da, gehienez ere bi hilabetez, aurkeztutako dokumentazioan dauden akatsak zuzentzeko edo egiaztapen egokiak egiteko, horien benetakotasuna eta nahikotasuna egiaztatze aldera.

4. Elkargoan sartzeko ukapena

que establece la disposición transitoria primera del Estatuto.

3. Quienes estén en posesión de la titulación requerida y cumplan los requisitos establecidos en el apartado anterior tendrán derecho a ser admitidos en el Colegio.⁹

Artículo 11. Procedimiento de incorporación.

1. La Junta de Gobierno resolverá y notificará las solicitudes de colegiación en el plazo máximo de un mes, pudiendo denegarlas únicamente cuando no se cumplan los requisitos establecidos en el artículo anterior. Aquella podrá delegar en uno de sus miembros el ejercicio de esta competencia.

2. Transcurrido dicho plazo máximo sin que la Junta de Gobierno hubiera notificado la resolución, la solicitud se entenderá estimada.

3. Podrá suspenderse el plazo para resolver, por término no superior a dos meses, con el fin de subsanar deficiencias de la documentación presentada o de efectuar las comprobaciones pertinentes para verificar su autenticidad y suficiencia.

4. La denegación de incorporación

⁹ LELren 3.1 artikulua.

⁹ Art. 3.1 LCP

arrazoitu egin beharko da, eta hilabeteko epean aurkaratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluan, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Estatutuaren IV. tituluko I. kapituluan xedatutakoaren arabera.¹⁰

al Colegio deberá ser motivada y podrá ser impugnada en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación ante el Consejo de Procuradores del País Vasco, en los términos dispuestos en el capítulo I del título IV del Estatuto.¹⁰

12. artikulua. Elkargokide-izaera galtzea.

1. Honako hauek dira elkargokide-izaera galtzeko arrazoiak:¹¹

a) Borondatez uko egitea.

b) Izaera hori lortzeko baldintzak ez betetzea jatorriz edo gerora; behar bezala egiaztatuko da.

c) Elkargoaren kontribuzioak ez ordaintzea.

2. Elkargokide-izaera borondatez uko egitearen ondorioz galtzeak ez du iraungitzen elkargokide egiteko aldi izandako diziiplina-erantzukizuna. Baja eskatzeko unean diziiplina-prozedura bat irekita badago, elkargoak aurrera jarraituko du horrekin, harik eta ebazpena eman arte. Zehapen bidez amaitzen bada, eta zehapen hori ezin bada bete, eten egingo da. Hala,

Artículo 12. Pérdida de la condición de colegiado.

1. Son causas de la pérdida de la condición de colegiado:¹¹

a) La renuncia voluntaria.

b) El incumplimiento, originario o sobrevenido, de los requisitos de adquisición de dicha condición, debidamente comprobadas.

c) El impago de las contribuciones colegiales.

2. La pérdida de la condición de colegiado como consecuencia de la renuncia voluntaria no extingue la responsabilidad disciplinaria en que se hubiera incurrido durante el período de colegiación. Si en el momento de solicitar la baja estuviere abierto un procedimiento disciplinario, el Colegio lo continuará hasta su resolución. De concluir mediante sanción, y si la

¹⁰ 18/1997 Legearen 42.1.d) artikulua

¹⁰ Art. 42.1.d) Ley 18/1997

¹¹ 18/1997 Legearen 39.2 artikulua

¹¹ Art. 39.2 Ley 18/1997¹² 18/1997 Legearen 17. artikulua

berrito sartzen bada prokuradore-korporazio batean, orduan betearaziko da.

3. Aurreko apartatuko b) letran aurreikusitako kasuan, Gobernu Batzordeak, elkargoaren balizko baja eragin duten inguruabarrak egiaztatu ondoren, interesdunari jakinaraziko dizkio eta entzunaldi-izapidea emango dio hamabost egun baliodunez. Epe hori igarotakoan, dagokion ebazpena emango du, gehenez ere hilabeteko epean.

4. Eta c) letran aurreikusitako kasuan, Gobernu Batzordeak kontribuzioak ordaindu gabe dituela adieraziko dio interesdunari, eta entzunaldi-izapidea emango dio hamabost egun baliodunez. Epe hori igarota, eta egindako alegazioak ikusita, ebazpena eman eta jakinaraziko du, gehenez ere hilabeteko epean. Hala badagokio, baja ematea erabaki ondoren, elkargora itzultzeko, zor diren zenbatekoak ordaindu beharko dira, dagokion legezko interesarekin.

6. Elkargokide-izaera galtzeari buruzko ebazpena aurkaratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluan, aurreko artikuluan elkargoan sartzeko ukapenaren

misma no pudiera hacerse efectiva, quedará en suspenso para ser ejecutada si ingresara nuevamente en una corporación de Procuradores.

3. En el supuesto previsto en la letra b) del apartado anterior, la Junta de Gobierno, constatadas las circunstancias determinantes de la eventual baja colegial, las pondrá de manifiesto al interesado y le concederá trámite de audiencia por período de quince días hábiles. Transcurrido dicho plazo adoptará la correspondiente resolución, en el plazo máximo de un mes.

4. En el supuesto previsto en la letra c), la Junta de Gobierno pondrá de manifiesto al interesado la situación de impago de las contribuciones, y le concederá trámite de audiencia por período de quince días hábiles. Transcurrido dicho plazo, y a la vista de las alegaciones efectuadas, adoptará y notificará la correspondiente resolución, en el plazo máximo de un mes. Acordada en su caso, la baja, la eventual reincorporación quedará condicionada al abono de las cantidades adeudadas con el interés legal correspondiente.

6. La resolución que determine la pérdida de la condición de colegiado podrá ser impugnada ante el Consejo de Procuradores del País Vasco en los términos previstos en el artículo anterior para la denegación de acceso

inguruan aurreikusitako moduan.

al Colegio.

13. artikulua. Elkargokide-izaera etetea.

1. Honako hauek dira elkargokide-izaera eteteko arrazoiak:

a) Ebazpen judicial irmoz lanbidean jarduteko gaitasungabetzea edo ezgaitzea.

b) Elkargoko zehapen irmoaren ondorioz, lanbide-gaitasungabetzea.¹²

2. Etendako elkargokide-izaerari eutsiko zaio etendura eragin duen arrazoiak irauten duen bitartean.

Artículo 13. Suspensión de la condición de colegiado.

1. Son causas de la suspensión de la condición de colegiado:

a) La inhabilitación o incapacitación para el ejercicio profesional dispuesta por resolución judicial firme.

b) La inhabilitación profesional como consecuencia de sanción colegial firme.¹²

2. La condición de colegiado suspenso se mantendrá en tanto subsista la causa determinante de la suspensión.

14. artikulua. Elkargokidetzeari buruzko prozeduren ebazpenak elektronikoki izapidetzea eta jakinaraztea.

1. Elkargoak beharrezko baliabideak izango ditu eskatzaileek elkargoan sartzeko edo baja emateko prozedurak bide elektronikoz izapidetu ahal izateko, Lanbide Elkargoari buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 10. artikuluan aipatzen den leihatila bakarraren bidez.

2. Elkargoak berehala jakinaraziko dizkio altak, bajak edo elkargokideen

Artículo 14. Tramitación electrónica y notificación de las resoluciones de procedimientos sobre colegiación.

1. El Colegio dispondrá los medios necesarios para que los solicitantes puedan tramitar los procedimientos de ingreso o de baja colegial por vía electrónica, a través de la ventanilla única a que se refiere el artículo 10 de la Ley del Estado 2/1974, de 13 de febrero, sobre Colegios Profesionales.

2. El Colegio comunicará de inmediato las incorporaciones, bajas o

¹² 18/1997 Legearen 17. artikulua

¹² Art. 17 Ley 18/1997

etendurak, eta lanbide-egoitzen aldaketak Kontseilu Orokorrari, Elkargokideen Erregistro Nagusian jaso ditzan, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluari eta lurraldeko epaitegi eta auzitegiei ere.

suspensiones de colegiación, así como los cambios de domicilio profesional, al Consejo General a efectos de su anotación en el Registro central de colegiados, al Consejo de Procuradores del País Vasco y a los Juzgados y Tribunales de su territorio.

15. artikulua. Elkargokide motak. Zenbakia eta egiaztapena.

1. AEPEOn sartutako prokuradoreek jarduneko edo ez-jarduneko izaera izango dute.¹³

2. Prokuradore bakoitzak elkargokide-zenbaki bat izango du, eta bere izaera egiaztatzen duen txartela edo egiaztagiria izango du. Izenpetzen dituen agiri profesional guztietan zenbaki hori idatzi beharko du, eta kide den elkargoa aipatu.

Artículo 15. Clases de colegiados. Número y acreditación.

1. Los Procuradores incorporados al ICPTA tendrán la condición de ejercientes o de no ejercientes.¹³

2. Cada Procurador tendrá un número de colegiado y será provisto de un carnet o credencial acreditativa de su condición. En todos los documentos profesionales que suscriba deberá consignar dicho número así como mencionar al Colegio de pertenencia.

II. KAPITULUA.- Eskubideak eta betebeharrak.

CAPÍTULO II.- DERECHOS Y OBLIGACIONES.

16. artikulua. Printzipio orokorrak.

Artículo 16. Principios generales.

1. AEPEOn sartzeak estatutu honetan jasotako eskubideak eta betebeharrak ematen ditu.

1. La incorporación al ICPTA confiere los derechos y obligaciones recogidos en el presente Estatuto.

¹³ 18/1997 Legearen 38.1 artikulua

¹³ Art. 38.1 Ley 18/1997

2. Auzitegietako prokuradore guztiak berdinak dira Estatutuan aitortutako eskubide eta betebeharrei dagokienez, hurrengo apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Ez-jarduneko elkargokideek jarduneko elkargokideen eskubideak izango dituzte, lanbidearen jarduneari zuzenean lotzen ez diren neurrian. Batzorde Orokorretan eta Gobernu Batzordeko kideak hautatzeko prozesuetan ¹⁴ eta, hala badagokio, zentsura-mozioetan emandako botoaren balioa jarduneko kideen botoaren erdia izango da.

2. Todos los Procuradores de los Tribunales son iguales en los derechos y obligaciones reconocidos en el Estatuto, sin perjuicio de lo que se dispone en el apartado siguiente.

3. Los colegiados no ejercientes disfrutarán de los derechos de los colegidos ejercientes en la medida en que no se vinculen directamente al ejercicio de la profesión. El valor de su voto en las Juntas Generales y en los procesos de elección de miembros de la Junta de Gobierno ¹⁴, así como en su caso en las mociones de censura, será la mitad que el de los ejercientes.

17. artikulua. Elkargokideen eskubideak.

Honako hauek dira elkargoko prokuradoreen eskubideak:

a) Organo korporatiboei beren independentzia eta egikaritzaskatasuna babesteko lanbide-jarduneari babesa eskatu eta, hala badagokio, lortzea. Horretarako, eskubide hori urratzen dela edo ez dela ezagutzen Botere Judizialeko gobernu-organoei, jurisdikziokoei zein administratiboei, jakinaraztea eskatu ahal izango dute.

b) Elkargoaren gobernu-gaietan

Artículo 17. Derechos de los colegiados.

Son derechos de los Procuradores colegiados:

a) La petición, y en su caso, obtención de amparo en su actuación profesional a los órganos corporativos para la protección de su independencia y de su libertad de ejercicio. A tal efecto, podrán pedir que se ponga en conocimiento de los órganos de gobierno del Poder Judicial, jurisdiccionales o administrativos, la vulneración o desconocimiento de este derecho.

b) La participación en los asuntos

¹⁴ LELren 7.3 artikulua

¹⁴ Art. 7.3 LCP

parte hartzea, Batzorde Orokorraren bilkuretan parte hartzea eta botoa ematea, gobernu-organoetako kide izateko hautatzeko eta hautatua izateko ahalmena, eta gobernu-organoetako titularrak kentzeko eskubidea, zentsura-bozketaren bidez, estatutu honetan araututako baldintzetan.

c) Elkargoko organoei eskaerak egitea eta kexak eta erreklamazioak aurkeztea, bai eta organo horien erabakien eta ebazpenen aurka errekurtoa jartzeko eskubidea ere.

d) Gobernu korporatiboari eta interes profesionaleko jarduerari buruzko informazio erregularra lortzea, bai eta elkargoaren jarduera ekonomikoa islatzen duten dokumentuak aztertzea ere.

e) Zuzenean eragiten dieten agiri eta elkargoko egintzen informazioa eskuratzea eta, hala badagokio, horiek ziurtatzea.

f) Elkargoaren ondasunak eta zerbitzuak erabiltzea, batez ere lanbide-prestakuntzakoak eta -trebakuntzakoak, zehazten diren moduan eta baldintzetan.

g) Elkargokide-eskubideak bere osotasunean mantentzea, harik eta elkargokide-izaera eten edo galdu arte.

de gobierno del Colegio, la intervención y voto en las sesiones de la Junta General, la facultad de elegir y ser elegido para formar parte de los órganos de gobierno y el derecho a remover a los titulares de los órganos de gobierno mediación votación de censura en los términos regulados en este Estatuto.

c) La formulación de peticiones y la presentación de quejas y reclamaciones ante los órganos del Colegio, así como el derecho de recurso contra los acuerdos y resoluciones de aquéllos.

d) La obtención de información regular sobre el gobierno corporativo y la actividad de interés profesional así como el examen de los documentos que reflejen la actividad económica del Colegio.

e) La obtención de información y, en su caso, la certificación de los documentos y actos colegiales que les afecten personalmente.

f) La utilización de los bienes y servicios colegiales, en particular de formación y de capacitación profesional, en la forma y condiciones que se determinen.

g) El mantenimiento en el pleno disfrute de sus derechos colegiales hasta tanto no se produzca la suspensión o pérdida de su condición de colegiado.

18. artikulua. Elkargokideen betebeharrak.

1. Elkargoko prokuradoreek betebeharrak hauek dituzte:

a) Lanbidean zuzentasunez eta zentzu etikoz jardutea, eta deontologia profesionala betetzea.

b) Lege organikoek, prozesalek eta sektorialek ezartzen dizkieten legezko betebeharrak betetzea, lanbidea betetzean, eta, bereziki, jurisdikzio-organoen lankidetzan eta elkarlanean aritzean, eta horretarako bitarteko eta baliabide egokiak eta eguneratuak izatea.

c) Lanbidean diharduen epaitegi eta auzitegiak, jakinarazpenetarako saletara eta zerbitzu komunitarioak jartzea, jarduteko epealdi baliodunetan, komunikazio-egintzak eta gainerako lanbide-jarduketak egikaritzeko.¹⁵

d) Elkargoko organoen emandako estatutu-xedapenak, arau deontologikoak eta ebazpenak ezagutu eta betetzea lanbidean jardutean.

e) Elkargoko organoen titularrei zor

Artículo 18. Obligaciones de los colegiados.

1. Los Procuradores colegiados están obligados a:

a) Ejercer la profesión con rectitud y sentido ético, y observancia de la deontología profesional.

b) Cumplir las obligaciones legales que le impongan las leyes orgánicas, procesales y sectoriales, en el desempeño de su profesión y, en particular, de colaboración y cooperación con los órganos jurisdiccionales, así como disponer de los medios y recursos adecuados y actualizados para ello.

c) Acudir a los Juzgados y Tribunales ante los que ejerza la profesión, a las salas de notificaciones y servicios comunes, durante el período hábil de actuaciones, para la realización de los actos de comunicaciones y demás actuaciones profesionales correspondientes.¹⁵

d) Conocer y cumplir, en el desempeño de la profesión, las disposiciones estatutarias, las normas deontológicas y las resoluciones dictadas por los órganos colegiales.

e) Guardar el debido respeto a los

¹⁵ PZLren 26.9 artikulua

¹⁵ Art. 26.9 LEC

zaien errespetua izatea, eta, beren lanbidean dihardutenean, beren lankide, auzilari, letradu, epaile eta magistratuei, fiskalei, justizia-administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen kidegoetako gainerako kideei.

f) Lanbide-jarduna antolatzeko elkargoaren funtzioak betetzeko beharrezkoak diren inguruabarrak, aldaketak eta gainerako datuak jakinaraztea elkargoari.

g) Lanbide-sekretua gordetzea.

h) Lanbide-bateraezintasunak betetzea, bereziki abokatuaren lanbidean aldi berean aritzeari dagokionez, Prozedura Zibilaren urtarilaren 7ko 1/2000 Estatuko Legearen 23. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

i) Bezeroari bere jarduketa profesionalen berri ematea eta emandako zerbitzuen kontuak ematea, jasotako zenbatekoak eta egindako ordainketen kontzeptuak eta zenbatekoak zehaztuta.

j) Elkargoaren kontribuzio ekonomikoak garaiz ordaintzea, eta, hala badagokio, erabili diren elkargo-zerbitzuak ordaintzea, estatutuetako

titulares de los órganos colegiales, y en el ejercicio de su profesión a sus colegas, litigantes, letrados, jueces y magistrados, fiscales, letrados de la administración de justicia y demás miembros de los cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia.

f) Comunicar al Colegio las circunstancias determinantes de su ejercicio profesional, así como sus modificaciones y los demás datos necesarios que se les requieran para el cumplimiento de las funciones colegiales de ordenación del ejercicio profesional.

g) Mantener el secreto profesional.

h) Observar las incompatibilidades profesionales, en particular con el ejercicio simultáneo de la profesión de abogado, en los términos precisados por el artículo 23 de la Ley del Estado 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

i) Informar al cliente de sus actuaciones profesionales y rendir cuenta de los servicios prestados, con especificación de las cantidades percibidas y precisión de los conceptos e importes de los pagos realizados.

j) Satisfacer puntualmente las contribuciones económicas del Colegio, y abonar, en su caso, los servicios colegiales de que haga uso,

arauetan eta elkargoko organoek arau horiek aplikatzeko hartutako erabakietan xedatutakoaren arabera.

k) Hautatutako edo izendatutako elkargoko karguetan leialtasunez eta arduraz jardutea.

2. Betebehar horiek prokuradorearen jardura profesional eta korporatiboaren beharrezko araubidea osatzen dute. Horiek betetzea da Estatutu honetan araututako kontrol- eta diziiplina-ahalen berezko xedea.

conforme a lo dispuesto en las normas estatutarias y en los acuerdos adoptados por los órganos colegiales para su aplicación.

k) Actuar con lealtad y diligencia en el desempeño de los cargos colegiales para los que sea elegido o designado.

2. Estos deberes configuran el régimen necesario de la actuación profesional y corporativa del Procurador. Su observancia constituye el objeto propio de las potestades colegiales de control y disciplina reguladas en el presente Estatuto.

III. TITULUA.- ELKARGOA.

TÍTULO III.- DEL COLEGIO.

I. KAPITULUA.- FUNTZIOAK.

CAPÍTULO I.- FUNCIONES.

1. ATALA.- FUNTZIO OROKORRAK.

SECCIÓN 1ª.- FUNCIONES GENERALES.

19. artikulua. Elkargoaren funtzioak.

Artículo 19. De las funciones del Colegio.

Estatutuaren 6. artikuluan adierazitako funtsezko helburuak lortzeko, AEPEOk, bere lurralde-

Para la consecución de los fines esenciales señalados en el artículo 6 del Estatuto, el ICPTA ejercerá, en su

eremuan, Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeriak lanbide-elkargoei, lege organikoei, prozesalei eta sektoriale, estatutu hauei eta gainerako arau-xedapenei buruz esleitzen dizkion funtzioak beteko ditu.

ámbito territorial, las funciones que le atribuye la legislación estatal y autonómica sobre colegios profesionales, las leyes orgánicas, procesales y sectoriales, los presentes Estatutos y demás disposiciones normativas.

20. artikulua. Lanbide-jarduna antolatzea.

Honako hauek dira lanbide-jarduna antolatzeko funtzioak:

a) Elkargokideen erregistroa. Bertan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira: elkargokideen izen-abizenak, elkargokide-zenbakia, dituzten titulu ofizialak, alta-data, lanbide-egoitza, helbide elektronikoa eta lanbide-gaikuntzaren egoera. Elkargoak doako sarbidea eskainiko die kontsumitzaile eta erabiltzaileei elkargokideen erregistrora, leihatila bakarraren bidez. ¹⁶

b) Elkargoaren lurralde-eremuan egoitza soziala duten lanbide-sozietateen erregistroa. Elkargoak Kontseilu Orokorrari jakinaraziko dizkio egindako inskripzioak, Lanbide Sozietateen Erregistro Nagusian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Prokuradoreen Kontseiluan jasota

Artículo 20. De ordenación del ejercicio profesional.

Son funciones de ordenación del ejercicio profesional:

a) El Registro de sus colegiados en el que constarán, al menos, los siguientes datos: nombres y apellidos de los profesionales colegiados, número de colegiación, títulos oficiales de los que estén en posesión, fecha de alta, domicilio profesional, dirección electrónica y situación de habilitación profesional. El Colegio ofrecerá a los consumidores y usuarios acceso gratuito al Registro de colegiados a través de su ventanilla única. ¹⁶

b) El Registro de las sociedades profesionales con domicilio social en el ámbito territorial del Colegio. El Colegio comunicará las inscripciones practicadas al Consejo General a efectos de su constancia en el Registro central de Sociedades Profesionales y al Consejo de

¹⁶ LELren 10.2.a) artikulua

¹⁶ Art. 10.2.a) LCP

gera daitezzen.¹⁷

c) Lanbide-jarduera zaintzea, lanbidearen etikari eta duintasunari men egin diezaion eta herritarren eskubideak behar bezala errespetatu daitezzen.¹⁸

d) Diziplina-ahala erabiltzea, lanbideari eta elkargoari dagokienez.¹⁹

e) Lanbide-intrusismoa eta lehia desleialeko egintzak saihesteko neurriak hartzea, ordenamendu juridikoan aurreikusitako ekintzak gauzatu.²⁰

f) Lege orokorrak eta bereziak eta estatutuak eta erregelamenduak betetzea eta elkargokideei betearaztea, bai eta elkargoko organoek beren eskumeneko gaitan hartutako arauak eta erabakiak ere.²¹

g) Elkargokideei buruzko informazio-eskaerei erantzutea, bai

Procuradores del País Vasco.¹⁷

c) La vigilancia de la actividad profesional para que ésta se someta, en todo caso, a la ética y dignidad de la profesión y al debido respeto a los derechos de los ciudadanos.¹⁸

d) El ejercicio, en el orden profesional y colegial, de la potestad disciplinaria.¹⁹

e) La adopción de las medidas conducentes a evitar el intrusismo profesional y los actos de competencia desleal, mediante el ejercicio de las acciones previstas en el ordenamiento jurídico.²⁰

f) Cumplir y hacer cumplir a los colegiados las Leyes generales y especiales y los estatutos y reglamentos, así como las normas y decisiones adoptadas por los órganos colegiales en materia de su competencia.²¹

g) Atender las solicitudes de información sobre sus colegiados, así

¹⁷ LELren 10.2.b) artikulua eta Lanbide-sozietatei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legearen 8. artikulua (LSL)

¹⁷ Art. 10.2.b) LCP y art. 8 Ley 2/2007, de 15 de marzo, de sociedades profesionales (LSP)

¹⁸ LELren 5.i) artikulua eta 18/1997 Legearen 24.a) eta c) artikulua

¹⁸ Art. 5.i) LCP y art. 24.a) y c) Ley 18/1997

¹⁹ 18/1997 Legearen 24.d) artikulua eta LELren 5.i) artikulua

¹⁹ Art. 24.d) Ley 18/1997 y 5.i) LCP²⁰ 18/1997 Legearen 24.k) artikulua

²⁰ 18/1997 Legearen 24.k) artikulua

²⁰ Art. 24.k) Ley 18/1997

²¹ LELren 5.t) artikulua

²¹ Art. 5.t) LCP²² LELren 5.g) artikulua

eta ezarri dizkien zehapen irmoei eta horiei buruzko egiaztapen-, ikuskapen-edo ikerketa-eskaerei ere, baldin eta Europar Batasuneko estatu kide bateko agintari eskudunek egiten badizkiete, otsailaren 13ko 2/1974 Estatuko Legearen 5.u) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

como sobre las sanciones firmes que les hubiera impuesto y las peticiones de comprobación, inspección o investigación sobre aquéllos, que les formulen las autoridades competentes de un Estado miembro de la Unión Europea en los términos previstos en el art. 5.u) de la Ley del Estado 2/1974, de 13 de febrero.

21. artikulua. Lanbidearen eta elkargokideen ordezkaritza eta defentsa.

Artículo 21. De representación y defensa de la profesión y de sus colegiados.

Elkargoak honako funtzio hauek izango ditu lanbidea eta elkargokideak ordezkatzeko eta defendatzeko:

El Colegio ejercerá las siguientes funciones de representación y defensa de la profesión y de sus colegiados:

a) Bere eremuan, lanbidea ordezkatzea eta defendatzea administrazio publikoen, jurisdikzio-organoen eta gainerako botere publikoen aurrean, bai eta edozein erakunde, entitate eta partikularren aurrean ere. ²²

a) Ejercer, en su ámbito, la representación y defensa de la profesión ante las Administraciones públicas, los órganos jurisdiccionales y demás poderes públicos, así como ante cualesquiera instituciones, entidades y particulares. ²²

b) Elkargokideak defendatu eta babestea beren lanbidean jarduteari dagokionez, batez ere beren independentzia eta jarduteko askatasuna babesteari dagokionez. ²³

b) Defender y amparar a los colegiados en el ejercicio de su profesión, particularmente en la protección de su independencia y libertad de ejercicio. ²³

c) Profesionalen interesei eragiten dieten auzietan epaitegi eta

c) Actuar ante los Juzgados y Tribunales en cuantos litigios afecten

²² LELren 5.g) artikulua

²² Art. 5.g) LCP

²³ LELren 5.g) artikulua

²³ Art. 5.g) LCP

auzitegietan jardutea, legeak ematen dien legitimazioarekin, eta kideen ordezkari gisa edo haien ordezen prozesal gisa jardutea.²⁴

d) Edozein gai profesional eztabaidatzen den prozedura administratibo edo judizialean esku hartzea, hala eskatzen zaienean edo indarrean dagoen legeriaren arabera parte hartzea aurreikusten denean.²⁵

e) Euskal Autonomia Erkidegoko arau-xedapenen proiektuei buruzko txostenak egitea, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoaren arabera.

f) Kontseiluetan, kontsulta-erakundeetan, batzordeetan eta administrazio-organoetan parte hartzea, horien arau erregulatuzailetan hala aurreikusita dagoenean eta arau horietan ezarritako baldintzetan, bai eta nazioko edo nazioarteko erakundeenetan ere, hala eskatzen zaionean.²⁶

g) Administrazio publikoek agintzen dizkion funtzio guztiak betetzea eta

a los intereses profesionales, con la legitimación que la ley les otorga, y hacerlo en representación o en sustitución procesal de sus miembros.

²⁴

d) Intervenir en los procedimientos, administrativos o judiciales, en que se discutan cualesquiera cuestiones profesionales, cuando sean requeridos para ello o cuando se prevea su participación con arreglo a la legislación vigente.²⁵

e) Informar los proyectos de disposiciones normativas de la Comunidad Autónoma de País Vasco de conformidad a lo dispuesto en el artículo 54 de la de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre.

f) Participar en los consejos, organismos consultivos, comisiones y órganos administrativos cuando así esté previsto en las normas reguladoras de los mismos y en los términos en ellas establecidos, así como en los de las organizaciones, nacionales o internacionales, cuando sea requerido para ello.²⁶

g) Ejercer cuantas funciones le sean encomendadas por las

²⁴ LELren 5.g) artikulua

²⁴ Art. 5.g) LCP

²⁵ LELren 5.o) artikulua eta 18/1997 Legearen 24.f) artikulua

²⁵ Art. 5.o) LCP y art. 24.f) Ley 18/1997²⁶ 18/1997 Legearen 24.j) artikulua eta LELren 5.b) artikulua

²⁶ 18/1997 Legearen 24.j) artikulua eta LELren 5.b) artikulua

²⁶ Art. 24.j) Ley 18/1997 y art. 5.b) LCP

haiekin lankidetzan aritzea, azterlanak, txostenak , estatistikak eta beren helburuekin zerikusia duten beste jarduera batzuk eginez. Jarduera horiek eskatu ahal izango zaizkio edo bere ekimenez egitea erabaki ahal izango du. ²⁷

h) Gai espezifikoetarako buruzko ezagutzak eskatzen diren edozein auzitegiatarako ordezkariak izendatzea, hala eskatzen bazaio. ²⁸

i) Elkargokideen interesekoak diren jarduerak eta zerbitzuak antolatzea, honako arlo hauetan: lanbidea, prestakuntza, kultura, medikuntza, eta antzekoak, edo, hala badagokio, izaera horretako erakundeekin lankidetzan aritzea, bai eta profesionalek beren jardueran hartutako erantzukizun zibilak estaltzeko ere. ²⁹

j) Elkargokideen interes profesionalen onerako diren beste hainbat funtzio eta zerbitzu garatzea.

Administraciones públicas y colaborar con ellas mediante la realización de estudios, la emisión de informes, la elaboración de estadísticas y otras actividades relacionadas con sus fines que pueden serles solicitadas o acuerde formular por iniciativa propia.

²⁷

h) Designar representantes en cualquier tribunal en que se exijan conocimientos relativos a materias específicas, siempre que se le requiera para ello. ²⁸

i) Organizar actividades y servicios de interés para los colegiados de índole profesional, formativa, cultural, médico-profesional, y otros análogos, o la colaboración, en su caso, con instituciones de este carácter, así como para la cobertura de responsabilidades civiles contraídas por los profesionales en el desempeño de su actividad. ²⁹

j) Desarrollar cuantas otras funciones y servicios redunden en beneficio de los intereses profesionales de los colegiados.

22. artikulua. Erakundeen arbitrajea Artículo 22. Del arbitraje y

²⁷ 18/1997 Legearen 24.j) artikulua

²⁷ Art. 24.j) Ley 18/1997

²⁸ 18/1997 Legearen 24.m) artikulua

²⁸ Art. 24.m) Ley 18/1997²⁹ LELren 5.j) artikulua eta 18/1997 Legearen 24.h) artikulua

²⁹ LELren 5.j) artikulua eta 18/1997 Legearen 24.h) artikulua

²⁹ Art. 5.j) LCP y art. 24.h) Ley 18/1997

eta bitartekaritza.

AEPEOk bitartekaritza bultzatu eta garatuko du, eta nazioko eta nazioarteko arbitraje-funtzioak beteko ditu, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera.³⁰

mediación institucionales.

El ICPTA impulsará y desarrollará la mediación, así como desempeñará funciones de arbitraje, nacional e internacional, de conformidad con lo establecido en la legislación vigente.³⁰

2. ATALA.- ELKARGOAREN ZERBITZUAK

SECCIÓN 2ª.- SERVICIOS COLEGIALES

23. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileei eta elkargokideei arreta emateko zerbitzua.³¹

1. AEPEOk kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestuko ditu.

2. Horretarako, haiei arreta emateko zerbitzu bat izango du. Zerbitzu horrek nahitaez izapidetu eta ebatziko ditu elkargokideen elkargo-jarduerari edo jarduera profesionalari buruzko kexak eta erreklamazioak, elkargokideen zerbitzu profesionalak kontratatzen dituen edozein kontsumitzaile edo erabiltzailek aurkeztutakoak, bai eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarte eta erakundeek aurkeztutakoak ere, haien ordezkari gisa edo haien interesen alde.

3. Kexak eta erreklamazioak elektronikoki eta urrutitik aurkeztu ahal

Artículo 23. Servicio de atención a consumidores y usuarios y a colegiados.³¹

1. El ICPTA velará por la protección de los intereses de los consumidores y usuarios.

2. A estos efectos, dispondrá de un servicio de atención a aquéllos, que necesariamente tramitará y resolverá cuantas quejas y reclamaciones referidas a la actividad colegial o profesional de los colegiados se presenten por cualquier consumidor o usuario que contrate los servicios profesionales de sus colegiados, así como por asociaciones y organizaciones de consumidores y usuarios en su representación o en defensa de sus intereses.

3. Las quejas y reclamaciones podrán presentarse por vía electrónica

³⁰ LELren 5.ñ) artikulua

³⁰ Art. 5.ñ) LCP

³¹ LELren 12. artikulua eta 18/1997 Legearen 50. artikulua

³¹ Art. 12 LCP y art. 50 Ley 18/1997³² LELren 10. artikulua eta 18/1997 Legearen 50,2. artikulua

izango dira. Elkargoak kexa edo erreklamazioa dagokion moduan ebatziko du: bai gatazkak judizioz kanpo ebazteko sistemari buruzko informazioa emanaz, bai espedientea elkargoko organo eskudunei bidaliz, dagozkion informazio- edo diziiplina-espedienteak bideratzeko, bai artxibatuz edo beste edozein erabaki hartuz, dagokionaren arabera.

4. Era berean, elkargoak elkargokideek aurkeztutako kexa edo erreklamazioei erantzungo die.

24. artikulua. Leihatila bakarra. ³²

1. AEPEOk webgune bat izango du, profesionalek, leihatila bakarraren bidez, elkargoko kide egiteko, jardunean aritzeko eta elkargoan baja emateko beharrezkoak diren izapide guztiak egin ahal izan ditzaten, puntu bakar batetik, bide elektronikoz eta urrutitik. Leihatila bakar horren bidez, profesionalek honako izapide hauek egin ahal izango dituzte, doan:

a) Lanbide-jardueran sartzeko eta jarduteko behar den informazioa eta formulario guztiak lortzea.

b) Beharrezko agiri eta eskabide guztiak aurkeztea, elkargoko kide

y a distancia. El Colegio resolverá sobre la queja o reclamación según proceda: bien informando sobre el sistema extrajudicial de resolución de conflictos, bien remitiendo el expediente a los órganos colegiales competentes para instruir los oportunos expedientes informativos o disciplinarios, bien archivando o bien adoptando cualquier otra decisión según corresponda.

4. Asimismo, el Colegio atenderá las quejas o reclamaciones presentadas por los colegiados.

Artículo 24. Ventanilla única. ³²

1. El ICPTA dispondrá de una página web para que, a través de la ventanilla única, los profesionales puedan realizar todos los trámites necesarios para la colegiación, su ejercicio y su baja en el Colegio, a través de un único punto, por vía electrónica y a distancia. Mediante esta ventanilla única, los profesionales podrán, de forma gratuita:

a) Obtener toda la información y formularios necesarios para el acceso a la actividad profesional y su ejercicio.

b) Presentar toda la documentación y solicitudes necesarias, incluyendo la

³² LELren 10. artikulua eta 18/1997 Legearen 50,2. artikulua

³² Art. 10 LCP y art. 50.2 Ley 18/1997

izatekoa barne.

c) Interesduntzat jotzen diren prozeduren izapidetze-egoeraren berri izatea, eta nahitaezko izapide-egintzen jakinarazpena eta, horiei dagokienez, elkargoaren ebazpena jasotzea, diziplina-espedienteen jakinarazpena barne, hori ezinezkoa denean beste bide batzuetatik.

d) Ohiko eta ezohiko Batzorde Orokorretara deituak izatea eta elkargoaren jardura publiko eta pribatua ezagutzea.

2. Aipatutako leihatila bakarraren bidez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak hobeto defendatzeko, elkargoak honako informazio hau emango du, argia, ageria eta doakoa izan beharko duena:

a) Elkargokideen erregistroan eta lanbide-sozietateen erregistroan sartzea.

b) Erreklamazio-bideak eta errekurtsioak, kontsumitzaile edo erabiltzailearen eta elkargokide baten edo lanbide-elkargoaren arteko gatazkarik izanez gero jar daitezkeenak.

c) Zerbitzu profesionalen hartzaileek laguntza lortzera jo dezaketen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte edo erakundeen datuak.

de la colegiación.

c) Conocer el estado de tramitación de los procedimientos en los que tenga consideración de interesado y recibir la correspondiente notificación de los actos de trámite preceptivos y la resolución de los mismos por el Colegio, incluida la notificación de los expedientes disciplinarios cuando no fuera posible por otros medios.

d) Ser convocados a las Juntas Generales ordinarias y extraordinarias y conocer la actividad pública y privada del Colegio.

